







## Energia kontsumoa EAEn



### Energiaren kontsumoa EAEn

#### Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %0,9 egin zuen behera azaroan, 2015. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %11 jaitsi zen; hirugarren sektorean, berriz, %15,9 igo zen. Azarora arteko kontsumo metatuak %5,5 egin zuen behera; 2015eko epealdi berarekin erkatuta; etxeko sektorean %3,2 jaitsi zen, industrian %8,6 eta zerbitzu arloan %0,2. Industrian gora egin zuten sektoreak, besteak beste, hauexek izan ziren: garraioibideen eraikuntza eta ontzigtintza (+ %7,5), burdinazkoa ez den metalurgia (+ %6,9) eta kautxuzko eratorriak (+ %4,5). Behera egin zuten sektoreak, gehienbat, siderurgiaren (-%20,7) eraginez izan zen.

#### Gas naturala







Azaroan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %21,3 egin zuen gora, 2015eko azaroan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %77,8 igo zen eta gainerako sektoreena %10,1. Azarora arteko kontsumo metatuak %9,1 egin du behera, aurreko epealdiaren aldean, (-%24,7 CCTT-n eta -%5,7 gainerako sektoretan).

#### Erregaiak garraioan

Urrian, garraioan erregaien kontsumoa %0,2 igo zen, 2015. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %2,8 egin zuen behera eta A gasolioarenak, berriz, %0,5 egin zuen gora. Urrira arteko kontsumo metatua %4,3 igo da, 2015eko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %1,5 egin zuen gora eta A gasolioarenak %4,6.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

## Kanpoko Egoera



### EAetik kanpoko egoera

#### Petrolioaren kontsumoa munduan






Azaroan, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 96 milioi kupel izan zen (2015eko azaroan izandakoaren aldean, %2,4 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %3,4 egin zuen gora kontsumoak, 13,9 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,5 egin zuen gora, eta 12 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan %2,7 igo zen, eta 19,6 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, azken 6 hilabeteetan, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,3 igo da, oro har, Txinan %3,1, AEBetan %0,2 eta Europar Batasunean %1,2.

#### Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %18,5 egin zuen gora azaroan, 2015eko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Azarora bitartean izandako kontsumo metatuak %0,4 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, gora egin zuen azaroan, %3,4, 2015eko azaroan izandakoaren aldean. Azarora bitartean izandako kontsumo metatuak %0,4 egin zuen gora. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %3 egin zuen behera urrian, 2015eko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %1,7 jaitsi zen eta gasolioena %3,2. Urrira bitarteko kontsumo metatuak %2,9 egin zuen gora, 2015. urteko epealdiaren aldean, (%2,4 igo zen gasolinena eta %3 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %13,2 egin zuen gora urrian; urria bitarteko kontsumo metatua %6,8 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EIAREN datuetan oinarrituta.

## Energiaren prezioa



### Energiaren prezioa

#### Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 46,4\$ (43 €) izan zen azaroan. Urtebetean prezioak %4,5 egin zuen gora (%3,8 eurotan).

#### Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 56,1 €/MWh izan zen azaroan; duela urtebete zegoenaren aldean, %9,6 egin zuen gora.

#### Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 16,5 €/MWh izan zen urrian, eta %13,7 jaitsi zen, 2015eko hil berean izandakoarekin erkatuta. Azaroan, EGIX-en prezioa 17,9 €/MWh izan zen (2015eko azaroan izandakoarekin alderatuta, %2,9 jaitsi zen). Spot merkatuetan, azaroan Henry Hub-en prezioa 7,9 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 18,6 €/MWh (2015eko hil horretan izandakoaren aldean, %19,1 egin zuen gora eta %21,9 egin zuen behera, hurrenez hurren).

#### Erregaien prezioa

EAEn, urrian, gasolioaren prezioa 1,05 €/l izan zen (urtebetean %0,3 igo da), eta gasolinarena 1,16 €/l (urtebetean %2,3 igo da).

#### CO<sub>2</sub>-aren prezioa

CO<sub>2</sub>-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,56 €/t izan zen azaroan, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %34,7 egin du behera.

Iturriak: EEEk prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.